

Helduei galiziera irakasteko curriculumaren berrikuntza: paradigmak, irakasleen formazioaren eta materialen zeregina

Xosé A. Calviño

Komunikazio-arloko aldaketa teknologikoak gero eta nabarmenago ari dira gure bizimodua aldarazten. Teknologia berrien aurrerakuntzek pertsonen eta herrien arteko harremanak erraztu egiten dituzte. Eta orain dela urte batzuk McLuhan-ek iragarri zuen aldea globalaren itxura hartzen ari da mundua. Dagoeneko distantziarik ez dago eta planetako biztanleen arteko komunikazioa bat-batekoa da. Komunikazio-marko orokor honetan hizkuntza gutxiagotua dugun komunitateok gure etxeetara inoristen diren komunikabide indartsuen erasoak suma dezakegu. Beharrezkoa da, beraz, ahalik eta lasterren eskuhartzea, gure hizkuntza eta kultura eraso honetatik babesteko ez ezik, gure presentzia komunikabide berrietan bermatze aldera ahalegin handiagoa egiteko ere.

Hizkuntza menperatzaileak hedabideetan egoteak beroiek ikastera derrihortzen gaituen bezala, hizkuntza propioa ikasteko bitartekoen abangoardiak hizkuntza gutxiagotuaren presentzia komunikabideetan bultzatzen lagunduko du. Erabiltzen diren programen efikaziaren baitan egongo da, neurri handi batean, lortuko dugun hizkuntzaren erabilera-maila eta, ondorioz, beraren iraupena belaunaldiz belaunaldi.

Erreferentzia markoa

Irakasle edo hezkuntza-programen diseinatzaile batek proposamen didaktikoren bat egin behar duenean, oso ongi ezagutu behar ditu horrekin erlazionatutako zenbait alderdi. Lehendabizi, egoera soziala ezagutu behar du; nolakoa den bere proposamena jasoko duen gizartearen, testuinguruak zein neurritan baldintza dezakeen, norentzat den, zein diren iturri antropologikoak eta zein egiteko duen irakasleak bere testuinguruan. Galiziera helduei irakasteari dagokionez, osagai horiek guztiak, ikusiko dugun bezala, erabakiorrak dira edozein proposamen curricularretan.

Mapa Sociolingüístico de Galician (MSG) jasotzen diren datuei esker geure komunitateko hizkuntz errealitatearen deskribapen nahiko argia dugu eskura, bai gaitasunari buruz eta baita erabilera eta jarrerei buruz ere. Beharrezko da, bada, azterketako datuei begiratzea dagokigun marko errearen deskribapen bat izateko. Datu horien analisitik atera ditzakegu, besteak beste, honako ondorio hauek:

- Lau trebetasunei dagokienez, *hizkuntz gaitasun maila* ondorengoa da: %98k ulertzen du galiziera, %86k galizieraz hitz egin dezake, %46k galiziera irakur dezake eta %27k idatz dezake. Datu horiek nabarmen aldatzen dira klase sozialaren eta adinaren arabera: trebetasun instrumentalen ezagupenak gora egiten du klase sozial altuetan eta gutxitu egiten da adinaren arabera. Gazteenak ezagupen instrumental handiagoa du, baina hitz egiteko gaitasun txikiagoa (ezagupen pasiboa-ezagupen aktiboa).
- Biztanleen %62k dute galiziera *lehen hizkuntza*, %26ak, berriz, gaztelania eta %12k biak. Datu horietan adinak badu bere eragina. Zenbat eta gazteagoak izan, orduan eta gutxiago dira galiziera lehen hizkuntza dutenak eta gero eta altuagoak dira, halaber, elebidunen kopuruak.
- *Familiaren indarra* ere gero eta ahulagoa da hizkuntzaren eta kulturen transmisioan. Behera egiten duela argi ikus daiteke eta hezkuntza sistemak familiaren egitekoa ordezkatzan du arlo honetan. Fenomeno honetan, era berean, bizilekuak, gizarte-mailak, gizabanakoen adinak, eta sorlekuak eragiten dute.
- *Erabilerari* dagokionez, Galizian galiziera hizkuntza nagusia dela azpimarra dezakegu: inkestatuen bi herenek erantzun zuten galiziera dutela hizkuntza bakartzat (%38) edo nagusitzat (%30). Gaztelania inkestatuen %10,6aren hizkuntza bakarra da eta %21aren hizkuntza nagusia.
- Galizian *elebakartasuna* ez dago *elebitasuna* bezain hedatua, dena dela, bi kasuetan joera handiagoa dago galiziera erabiltzeko. Orokorrean esan dezakegu galizieraren erabilerak gora egiten duela adinduen artean, nekazari-giroan, maila sozioekonomiko apalekoen artean eta eta ikasketa-maila baxua dutenen artean.
- *Elebakar galizieradunak* ere gutxitu egiten dira belaunaldi gazteenei begiratzen badiegu, *erabilera elebidunen* mesedetan. Hala ere, lehen hizkuntza eta ohiko hizkuntza aldagaiak erkatzen baditugu, beren buruak gaztelaniadun huts dutenek joera handiago dute galizierarako galizieradun peto direnek gaztelania erabiltzeko baino.
- Galizieraren erabilerak *hiri guneetan* ere egiten du behera.
- *Idatzizko erabilerari* dagokionez, gaztelania da hizkuntza nagusia, nahiz eta galizieraren erabilera handiagoa den irakurtzean idaztean baino. Honela, elebakar galizieradunen erdiak beti gaztelaniaz idazten du.
- *Familia arteko erabileran* galizierak bizitasun nabarmena du oraindik ere. Hala ere, beherakada bat suma daiteke aiton-amonekin, gurasoe-

kin, ezkontidearekin eta bereziki seme-alabekin erabiltzen den ahozko hizkuntza aztertuz gero. Datu horiekin lotuta adina eta bizilekua beza-lako faktoreak daude.

- *Eskola-giroan* erdalduntze sakona suma daiteke. Elebakar galizieradunek elebitasunerako joera erakusten dute eskolan eta elebidunek ere beste eremuetan baino gutxiago erabiltzen dute galiziera. Komunikazioaren formaltasun-mailak ere badu hemen bere pisua, komunikazioa zenbat eta formalagoa orduan eta gaztelaniazkoagoa...
- *Auzo, lagun eta ezagunekiko erabilerari* dagokionez, ohiko hizkuntza mantentzeko joera dago. Hala ere, gaztelania ohiko hizkuntza dutenek gehiago darabilte galiziera formaltasun-maila apala denean eta galiziera ohiko hizkuntza dutenek ere gehiago erabiltzen dute gaztelania solaskideak galiziera ongi ulertzen ez duelako gaizki ulertuak sor daitezkeenean.
- *Lanean* erabiltzen den hizkuntza ohiko hizkuntzarekin bat dator gehienetan. Hala ere, galizieraren erabilerak behera egiten du gazteen artean, ikasketa-maila altuarekin, hiri-giroarekin eta gizarte maila baxuenekin. Era berean, galiziera gutxi erabiltzen da zuzendari eta bezeroekiko harremanetan.
- *Administrazioan, merkataritzan eta sendagilearenean* galiziera hizkuntza nagusia bada ere, komunikazio-gunea zenbat eta formalagoa izan galizieraren erabilerak hainbat eta beherago egiten du.
- *Jarrerari* gagozkielarik, azpimarra dezakegu Galiziako biztanleak, oro har, galizieraren aldekoak direla, ez baita alde handirik ikusten talde soziolinguistiko ezberdinen artean. Aldeko jarrerak adinarekin daude lotuta, gizabanako gazteenek baitituzte jarrerarik aldekoenak.
- Koerlazioa dago, bestalde, gaitasun-maila, adina, ohiko hizkuntza eta aldeko jarreraren artean. Honela, gazteenek, galizieran gaitasun-maila ona dutenek eta galiziera ohiko hizkuntza dutela diotenek ere jarrera aldekoagoak dituzte galizierarekiko.
- *Aurreiritziei* dagokionez, horiek garrantzi txikia dutela aipa daiteke eta azken urteotan hizkuntzaren prestigioaren gorakada eta galiziera kultur hizkuntza bezala gero eta onartuagoa dela ikus daiteke. Galizierak ez du loturarik maila sozialean gora egitearekin, ezta lagunak egiteko erraztasunarekin edo edertasunarekin ere. Ez da aldaketa esanguratsurik nabaritzen gizarteko edo hizkuntz talde ezberdinen artean.

Helduentzako ikastaroen tipologia:

Gaur egun Galizian ditugun helduentzako ikastaroen eskaintza bi mailatan egituratzen da: *hastapen-ikastaroak* eta *hobekuntza-ikastaroak*. Gutxieneko maila ("*soleira*" maila) ezartzeko ahaleginak egin badira ere, huts-hutsetik ikasten hasteko, egoera linguistikoak oinarritzko ezagupen batzuetatik abiatzera eraman gaitu. Bizi dugun testuinguruan inor ezin baita galizieraren presentziatik at egon eta biztanle guztiek dute nolabaiteko harremana, gertukoa nahiz urrutikoa, komunitateko berezko hizkuntzarekin.

Hastapen- eta *hobekuntza-ikastaroak*, gutxieneko edukien programa batzuk izanik ere, 1989ko martxoaren 1eko aginduek arauturik, hainbat egokitzapen curricular izan ditzakete segun eta norentzat diren. Honela, osasun-arloko langile, funtzionario edo irakasleenak bezalako talde profesionalentzako ikastaroak badaude edota kultur elkarte, auzo-talde, sindikatu eta abarrentzakoak ere. Kasu bakoitzean egokitzapenak egiten dira jarduera profesional edo sozial jakinen arabera, etekinik handiena atera ahal izateko.

Santiagoko Unibertsitatearen bitartez atzerriarrentzako *hastapen-* eta *hobekuntza-ikastaroak* ere garatu dira. Kurtso horietako metodologia eta programen helburu nagusia da ikasleak hizkuntza ekintza komunikatibo konkretuetan gaitzea eta balio handikoak izan dira beste metodo eta programak batzuk sortu eta eraldatzen joateko.

Helduentzako *hastapen-* eta *hobekuntza-ikastaroak* gain, *irakasleentzat galizieraz espezializatzeko ikastaroak* eskaini dira, irakasle horiek beren lana ahal den kualifikazio-mailarik handienaz bete dezaten. Kasu askotan hizkuntza eta literatura galiziera irakasteko balio izan dute eta, beste batzuetan, beste ikasgai batzuk galizieraz irakatsi ahal izateko behar den gaitasuna lortzeko.

Administrazio-mailan, tokiko administrazio, administrazio autonomiko eta estatukoari buruzko programa bereziak diseinatu dira, *hizkuntza administratiboa* lantzeko ikastaro espezifikoak (oinarrizko maila, maila ertaina eta goi-maila). Justiziaren administrazioan bereziki, hizkuntza juridikoa, maila bertsuetan, lantzeko programak garatu behar izan dira.

Era esperimentalean *helduentzako komunikazio sozialeko ikastaroetara* (I. Maila eta II. Maila) programak atera dira. Eduki espezifikotan oinarritzen dira horiek: komunikabideetako hizkera, publizitatea, gaitasun sozialak, administrazioko hizkuntzaren oinarritzko ezagupena, teknologia berriak eta literatur sormenerako teknikak. Era berean, *etorkinen seme-alabentzako hizkuntza eta literatura galizierari buruzko programa* berezi baten diseinua egin dira.

Ikastaroetara joaten diren ikasleen profila

Ikastaroetan eta beroien eraginkortasunean eragiten duten ikuspuntu metodologikoen trantsizio-une batean gaudela kontuan hartuz, erabaki genuen hasierako ebaluazio-diagnostikoetan erabilitako galdetegien datuen atzera begirako analisi bat egitea. Hau da, esku artean genuen giza bitartekoen azterketa egingo genuen, gure proposamen curricularrak eta metodologiko eta didaktikoak benetako ezagupenean oinarrituz egiteko.

Datuen analisitik, besteak beste, ondorengo ondorio hauek atera ditzakegu:

- Ikastaroetara datozenen batez besteko *adina* 30 urtetik beherakoa da. Datu hau garrantzirik gabekoa dela iruditzen bazaigu ere, ez da horrela. Heldu horiek, beren adinarengatik galiziera ikasgai bezala izan zuten eskolan eta partez, bederen, galizieraz ikasi zuten. Argi dago, alferrikakoa litzateke, horiekin eskolako metodo berberak erabiltzea, prozedura berekin eduki berak lantzea... seguraski emaitza bertsuak

lortuko baikenituzke. Horri buruzko hausnarketak erabileraren eta jarreraren aldaketa bultzatzen duten metodoak erabiltzera eramango gaitu.

- *Ikastaroetara datozenen %82 emakumezkoa da eta %18 gizonezkoa.* Ikastaroetara joateko motibazioaren eta egoera sozio-laboralaren azterketak informazio garrantzitsua eman diezaguke. Datu horiek eragina izan dezakete, ageri den bezala, ukipen-egoeran dauden hizkuntzen erabileran, botere-orekarik eta berdintasunik gabeko testuinguruetan, edo amek seme-alaben hizkuntz hezkuntzan izan dezaketen jardunean.
- *Partehartzaileen ikasketa- maila altua da. %50k unibertsitate-ikaske-tak ditu, %30k ertainak eta %20k oinarrizkoak.* Datu horiek, hurrengo-ko puntuan aztertuko dugunarekin batera, hurrengo hipotesia formulatzera garamatzate: galiziera derrigorrezko eskakizuna da lan-merkatutarako bidea emango duen curriculuma osatzerakoan.
- *Partehartzaileen %30k bakarrik dauka enplegua.* Gainontzeko %70, lanik gabe daudenek, %24, eta oposizioak prestatzen ari direnek, %46, osatzen dute. Egoera horrek badu bere isla ikastaroen metodologian eta helburuetan. Egoera ezberdinetan, eskaerak ezberdinak dira eta irakas-leek helburuen arabera edo partehartzaileen nahien arabera moldatu behar dituzte beren metodoak.
- *Gehienak, %83, hirietan bizi dira.* Galizian hiri eremuan bizi direnak gutxiago dira landa eremuan edo herrixketan bizi direnekin konparatu-ta. Dena dela, landa-eremuan gertatzen ari den exodoa handia da orain-dik, eta horrek baditu bere ondorioak hizkuntzaren arloan. Datu horiek galizieraren ezagutzaz eta erabileraz esan ditugunekin lotzen baditugu, ikastaroetara datozenen H_1 zein den ondoriozta dezakegu.
- *Gaitasun-mailari dagokionez, %95k ulertzen du, %70k hitz egin deza-ke, %60k irakurri eta %60ak idatzi egin dezake.* Datu horiek ezin ditu-gu kualitatiboki hartu, ebaluazio-tresna zehatzagoa beharko genuke horretarako. Argi dago gaitasun komunikatibo maila ezberdinak izan-go direla ehuneko horietan eta irakasleak ebaluatu egin beharko ditu bere hezkuntz jardura diseinatu aurretik.
- *Partaideen %28k galiziera lehen hizkuntza duela adierazi du, eta %72k gaztelania.* Datu horrek zalantza sor dezake MSG delakoaren datuak kontuan hartzen baditugu, baina berehala ulertuko ditugu adi-narekin, bizilekuarekin, ikasketa-mailarekin eta abarrekin lotutako era-gileak kontuan hartzen baditugu.
- *Lan-eremuko erabilerari dagokionez, %20k galiziera erabiltzen duela adierazi du, %65k, berriz, gaztelania eta %15k biak darabilzkila dio.*
- *Lagunen artean %28 galizieraz mintzatzen da, %37 gaztelaniaz eta %35 bietan.*
- *Familia arteko harremanetan, %27k galiziera erabiltzen du, %50k gaz-telania eta %33 elebitan moldatzen da.*

- *Zein formazio-era* nahiko luketen galde egin ondoren, %43k erabil-tzaile bezala gaitasuna handitu nahi du (gaitasun komunikatiboa), %45k hiztegia aberastu eta hizkuntz kalitatea hobetu nahiko luke (gai-tasun linguistikoa) eta %9k ezagupen gramatikala eskatzen du.
- *Ikastaroetan parte hartzeko motibazioari buruz*, gehienek lana bilatze-ko eta egoera profesionala hobetzeko ikasten dutela adierazi dute. Bigarren maila batean daude gaitasun komunikatiboa hobetzea edo arrazoi sozialak edo terapeutikoak bezalakoak.

**Metodoen
egokitzapena.
Zein paradigma
eta ikuspegitan
gauden**

Nola eragiten dute eragile horiek guztiek ikastaroetan diseinatzen ditugun programa eta metodoetan? Zein da paradigma egokiena lortu nahi ditugun helburu komunikatibo-funtzionalak lortzeko eta geure ikasleen-gan ikuspuntu soziolinguistikotik eragiteko?

*Metodo gramatikalak
vs. komunikatiboak*

Hainbat urtetan ikuspuntu komunikatibo-funtzionalen eta gurekin erabili zituzten metodo gramatikazaleen arteko eztabaidan jardun dugu. Poliki-poliki galizieraren didaktikari buruzko kontzeptzio berria gureganatuz joan gara eta irakasleak erabilera arrunteko egoeretatik abiatu beharraz jabetu dira. *Erabileraren* kontzeptua dugu apurka-apurka lortu dugun ikuspuntu pragmatikoaren ardatza. Hizkuntzaren eta komunikazioaren alderdi soziolinguistikoak eta diskurtsiboak dira beharrik handieneko eremuetan gizarte-mailako erabileran eta jarrera-aldaketan aldaketa-eragile eraginkorrenak. Azkenean, zein da helduei hizkuntza irakastearen xede nagusia? Oinarrian, esan dezakegu xedea erabilera linguistiko eta komunikatiboen gainean adierazpen-, ulermen- eta hausnarketa-baliabi-deak ematea dela. Horrela, ikasleek baliabide horiek lagun, kode linguis-tiko eta ez-linguistikoak egoki erabiliko dituzte hainbat eta hainbat egoera eta testuingurutan, formalizazio edo planifikazio-maila ezberdi-netan beren ahozko eta idatzizko ekoizpenetan.

Horregatik, erreferente nagusia gaitasun komunikatiboa da, alegia, heldu batek abian jarri behar dituen mota ezberdineko prozesu eta ezagutza-multzoak (linguistikoak, soziolinguistikoak, estrategikoak eta diskurtsiboak), egoerarekin, komunikazio-testuinguruarekin eta formal-tasun-mailarekin bat datozen diskurtsoak produzitu edo ulertzeko. Osagai soziolinguistikoak testuinguru jakin bat ezagutzen lagunduko dio beste testuinguru batzuetatik bereizteko eta, beraz, hor beharko duen portaera komunikatiborako arau egokiak aukeratzeko. Osagai diskurtsi-boak, berriz, solaskidearekin lankidetzan adierazpide koherenteak sor-tzen lagunduko dio eta osagai estrategikoak gatazkak konpondu eta komunikazioaren eraginkortasuna handituko dio.

Lomas-ek zioenez, “gaitasun komunikatiboa helduaren komunikazio-egoera eta testuinguru ezberdinei egokitutako erabilera soziala hobetu nahi bada, hezkuntzaren ikuspuntutik eta gelan egindako eskuhartze didaktikotik, jabetu beharko dugu teoria gramatikalek mugak eta gabe-ziak badituztela esanahi eta komunikazio-fenomenoak beren osoan azal-tzeko. Gainera, gure ezagutza teorikoak zabaldu egin beharko genituzke,

ikuspegi kognitiboak, soziolinguistikoak eta pragmatikoak ere aintzat hartuz eta diskurtsoa topagune semiotiko gisa ulertuz, hortxe elkartzen baitira testu-era ezberdinak eta kontestu eta egoera-mailako aldagaiak, elkarrekintza komunikatiboak arautzen dituztenak”.

**Diskurtsoaren
analisi eta
komunikazioaren
pragmatika**

Gaur egun, zientzia kognitibotik, soziolinguistika interakzionaletik, testuaren hizkuntzalaritzatik, analisiaren diskurtsotik eta semiotikatik egindako ekarpenei esker, esan dezakegu gure metodologia pedagogikoa bi ardatz nagusitan oinarritzen dela:

- Galizieraren ikaskuntza unitate diskurtsibotan antolatzea.
- Irakaskuntza komunikazioaren alderdi pragmatikoetatik bideratzea, ahozko diskurtsoa, idatzizkoa eta ikonografikoa ere beren testuinguruekin, hartzaile eta ekoizleekin, uztartuz.

Gure ustetan, gurea bezalako hizkuntz ukipen-egoera bateko ezaugarriei aurre egiteko, ekintza komunikatiboa egoki testuinguratu beharko litza-teke, igorle eta hartzailearen arteko harremanari erreparatuz eta diskurtsoaren asmoa, formaltasun-maila eta bereziki galizierak eta gaztelaniak gure komunitatean duten tokia kontuan hartuz.

Hasteko, “hitz egitea” “zerbait egitea” dela aitortu behar dugu. Hizkuntza beti “erabilera” da, testuinguru batean gainera. Gure kasuan testuinguru hori komunikazioaren eskenatokitik haratago doa. Hainbat jokaera eta jarrera tartean sartzen baitira, solaskidearen intentzioak interpretatzeko elkarlaneko prozesu bat ibilian jartzen dutenak.

Hiztuna zerbait egiten saiatzen da, entzuleak asmo hori atzematen du eta horren gainean erantzun bat prestatzen, linguistikoa nahiz estralinguistikoa. Horrek esan nahi du ikuspegi linguistikotik begiratuta, azterbide pragmatiko eta soziolinguistikoak erabili behar direla. Ikuspegi didaktikotik begiratuta, berriz, hainbat estrategia jarri beharko ditugu ibilian ikasleek komunikazio-egoera horien gaineko hausnarketa kritikoa egin dezaten, egoera horiek sortzen dituzten faktore linguistikoak eta estralinguistikoak ulertu eta azpiko araua zein den era arrazoituan ezartzeko.

*Ukipen-egoeran
dauden hizkuntzak*

Galiziako ukipen-egoeraz ari garenean, Silva-Valdivia-k (1994) zioen bezala, arrazoi historiko ezberdinak zirela medio, bi hizkuntza komunitate bakarrean kokatu eta erabilera-gune sozial konpartituak dituen egoeraz ari gara. Gure kasuan biztanleen ehuneko handi batek bi hizkuntzak erabiltzen ditu eta, zentzu orokor batean, elebidunak dira. Beraiek dira, bada, ukipenaren eskenatokia; baina ukipen horren nolakoa eta hizkuntz portaera bistartzeko modua gaitasunari edo jarrera indibidualei ez ezik, hizkuntzen historiari berari eta beren erabilera gobernatzen duten araei ere zor zaie.

Galizian ukipen horren (kodearen aukeraketa solaskidearen arabera, kode alternantzia eta interferentzia linguistikoak) agerpenik garbienak hiru faktorek baldintzatzen dituzte oro har:

- 1 Galizieraren eta gaztelaniaren egituren antzak.
- 2 Galiziako hizkuntz irakaskuntzaren prozesuak.
- 3 Bi hizkuntzen egoera sozialak.

Ezaguna denez, galizieraren eta gaztelaniaren arteko hurbiltasuna oinarri genetiko batetik dator, sustrai berekoak dira, baina badaude arrazoi historiko-politikoak ere. Portugalera ere sustrai berekoa da, baina harekiko urruntasuna eta gaztelaniarekiko hurbiltasuna aipatu arrazoi historiko-politiko horiengatik bakarrik azal daitezke, eremu politiko jakin batean egoteagatik. Baina arrazoi historikoak alde batera utzita, argi dago erabileran arruntean eta bat-batekoan gaztelaniaren eta galizieraren arteko muga linguistikoak ez direla oztopo komunikaziorako.

Galizian bi hizkuntzen erabileran eragina duen beste faktore bat hizkuntza bakoitza ikasteko modua da. Are orain dela hamabost urte ere galizierak ez zuen tokirik hezkuntza-sistema ofizialean, ez zegoen idaztarau ofizialik. Gaztelaniak, berriz, arau- eta estandarizazio-gaietan arazorik gabe, hezkuntza, komunikabide eta, oro har, hizkuntzarako eredu gisa har daitezkeen gune guztietako hizkuntza zen. Testuinguru horretan, oso ezberdinak ziren gizartean hizkuntza bakoitza tratatzeko moduak, bai ikaskuntza-prozesuari zegokionez bai horren finkatzeari zegokionez ere. Oro har, esan daiteke 33 urtetik gorako guztiek ingurutik ikasi zutela galiziera eta halatan, erderakadez jositako hizkuntza ikasi zuten, ez baitziren gai gaztelaniaren eraginari antzemateko. Batasun-araurik gabe ikasi izanak forma dialektalak indartu zituen, baina, hori hizkuntzarentzat aberasgarria bada ere, maila sozialean eta kulturean askozaz itzal handiagoa zuen gaztelaniaren kutsadura ekarri zuen. Eragin hori ezberdina izan da zein gune sozial eta geografikotan gertatu den, eta galiziera H_1 edo H_2 gisa ikasteak ere bere pisua izan du horretan. Horrek guztiak, labur bada ere, ikaskuntzaren baldintzek bere garaian izan zuten garrantzia azaltzen digu eta era egoki batean bistaratzeko hizkuntz interferentziaren fenomenoak.

Galiziera famili giroan bakarrik erabili eta egoera formalagoetatik at egon izanak ekarri zuen hizkuntzaren eta maila soziokulturalaren arteko lotura hori. Eta, hortixek datozen jarrerak noizbehinkako kode-aldaketen edota hiztun batzuen hizkuntz aldaketen eragile dira. Zorionez, gauzak aldatu egin dira azken urteotan eta aurreiritzi horiek guztiak poliki-poliki gainditzen ari dira. Eta, itxuraz bederen, alderantzizkoa hasi zaigu orain gertatzen, baina oinarrian gauza bera da. Zenbait tokitan galiziera era liturgikoan, erritualean erabiltzen da (komunikabideetan, kultur guneetan, parlamentuan...) baina eguneroko gaietan eta gune pribatuetan ere benetan finkatu gabe. Nahiz batean nahiz bestean, hiztun elebidun usteko horiek erabileran sozialeko arauak (aldakorrak direnak) barneratzen dituzte eta beren jardun linguistikoa sozialki hizkuntza indartsuenera makurtzen dute; hots, gaztelania erabiltzen dute. Ikuspuntu didaktikotik, egokitzen horrek gure ikuspegia, irakaskuntzarekikoa, baldintzatzen du, hiztunak bere diskurtsoa egoerara egokitzeko duen gaitasuna ezagutza linguistikotik haratago baitoa. Eta hainbat bereizketa egin beharko

ditugu portaera soziolinguistikoan, eta dauden aldeak ongi zehaztu, kode-aldaketa-aren eta erregistro-aldaketa-aren artean, hizkuntz interferentziaren eta aldagai kolokial edo dialektalen artean, eta aztertu beharko dugu, halaber, zergatik hiztunak aukeratzen duen hizkuntza bat eta ez bestea: gaitasunik eza, gabezi linguistiko puntuala, aldagai sikosozialak, arrazoi estilistikoak?

Horiek guztiek nola irakatsiko den argi zehaztea eskatzen dute. Ikuspuntu komunikatibo funtzionaletik abiatzeak ez luke baztertu beharko zuzenketa linguistikoa, batez ere fonetikan, ortografian eta sintaxian, gaztelaniaren interferentziak saihesteko. Eta bi hizkuntzen erabilera soziala ere kontuan hartzekoa da hemen.

*Berezko kulturaren
kontzeptua. Inplikazio
metodologikoak.
Komunikazioaren
etnografia*

Komunikatibo izeneko ikuspegi guzti-guztiak ezin dira gure testuinguruan erabili. Ezin dugu era aseptikoan irakatsi, kode linguistikoa bakarrik landuz, testuingururik gabe aritzeko arriskuan eroriko baikinake. Gurea bezalako hizkuntz egoera anormal batean non gauden kontuan ez hartzeak metodoen porrota dakar ezinbestez.

Gaitasun komunikatiboak *gaitasun kulturala* ere badu bere baitan; alegia, testinguru kultural jakin batean partehartzaileek dituzten asmo eta egoera komunikatiboen arabera, enuntziatu egokiak sortzeko darabiltzaten prozedura, arau eta estrategiak. Alde horretatik, bada, gaitasun komunikatiboa besteekiko harremanetan, denboraren joanean lortzen den arau-bilduma da eta, beraz, soziokulturalki baldintzatuta dago.

Ikuspuntu didaktikotik programa curricularrak ezin dira errealitatetik at egon eta, horregatik, gure komunitateko berezko eduki kulturalak jaso behar ditu: ohiturak, tradizioak, etnografiak, folkloreak, antzerkiak, ahozko literatura tradizionalak eta gastronomiak ere beren tokia izan beharko lukete ikastaroan. Egia da, horrelako proposamenak behar bezain zorrotz gauzatu ezean, iparra galduko genukeela ikastaroa folklorikoegi edo kulturala bihurtuz, xede mugatuegia izango luke eta albo batera utziko lituzke oinarritzko trebetasunen ezagutza. Hori saihesteko, eguneroko alderdi biziei erreparatu beharko genieke: umorea, bizimodua, ekonomia, aisialdia eta jaiak, pertsonen arteko harremanak, baita egungo arazo sozialak ere... Eduki soziokulturalak era egokian planteatzen badira eta balio baldin badute etekinik ekartzeko metodologia aktiboak, ekoizpenari bideratuak edo atazei begirakoak, denak ongi hurrenkeratuak eta curriculumetan ongi lekutuak oso eraginkorrak izango dira gaitasun komunikatiboa handitzeko eta nahi ditugun alderdi soziolinguistikoak eta integrazio soziala ere lortzeko.

Gurea bezalako elebizko egoera batean, galizieraren ikaskuntzan arreta berezia eskaini behar diogu gaitasun soziokulturalari. Horrela, gure hirietako erdaldunek galizierarekin batera berezko kultura ere eskuratu-ko dute: tradizionala eta ez-hiritarra nahiz hiritarra (literarioa eta ez-literarioa). Eta kultura horretako aribide eta balore espezifikoez jabetuko lirateke, hizkuntza bera integratziorako bidea izanik.

Komunikazioaren etnografiatik abiatuz, soziolinguistika interakzionalak beste diziplina batzuetatik jasotako ekarriak biltzen ditu. Esaterako, pragmatika filosofikoa, orientazio kognitiboko psikologia soziala, soziologia interakzionala, diskurtsoaren analisia eta adimen artifizialari buruzko azterketak, erabilera linguistikoa bere testuinguruan ulertzekoak. Soziolinguistika interakzionalaren ikuspegiaz ari direnek hizkuntza gizataldeen errealitate sozial eta kulturalaren beste osagai bat gisa ikusten dute eta, era berean, erabilera linguistikoa errealitate horren adierazlea da horientzat. Izan ere, mundu sozio-kulturala neurri handi batean komunikaziozko elkarreraginen bitartez osatu, mantendu eta aldatu egiten da. Eredua horretan ahozko eta ez ahozko faktoreak sartzen dira, faktore kognitiboak, egoerazkoak eta soziokulturalak. Labur esateko, gaitasun komunikatiboa osatzen duten faktore guztiak.

Ikuspuntu didaktikotik analisi-mota hori oso erakargarria da. Ikus ditza-gun arrazoiak:

- Ahozko eta ez ahozko abildadeak eskatzen dituzten egoera komunikatibo ezberdinak proposatzen dituelarik, pertsona helduak trebatzea ahalbideratzen du ahozko diskurtsoaren lanketaren bidez, ekoizpenean parte hartzen duten elementu ezberdinen hausnarketatik abiatuz.
- Diskurtso pedagogikoan “ezkutuko” curriculumari buruzko kontzientzia ahalbideratzen du, ikasleei autoanalisiaren garrantzia azpimarratuz.
- Koherentzia diskurtsiboa edo testukoa (alderdi gramatikalak, prosodikoak, lexikoak...) osatzeko, produzitzeko edo adierazteko erabiltzen diren mekanismo ezberdinen analisiaren bitartez ahozko eta idatzizko erabilaren artean dagoen lotura korapilatsua ulertzen laguntzen du.

Atzerriko hizkuntzen didaktikaren ekarpenak

Zein neurritan erabil daitezke ukipen-egoeran dauden hizkuntzen didaktikan hizkuntza modernoek ikaskuntzako berrikuntza metodologikoak? Zein neurritan eraman daitezke ikusmolde horiek galizieraren egoerara?

Atzerriko hizkuntzen didaktikak, oro har, hizkuntzen didaktikaren nondik norakoa ezarri du azken urteotan. Egia esan, bigarren hizkuntzaren edo atzerriko hizkuntzaren irakaskuntza-egoera jakin bat beti da hizkuntz ukipen-egoera bat. Hala ere, gure ustez, aldeak hain dira handiak ezin baitira dauden-daudenean aplikatu atzerriko hizkuntzen ikaskuntzaren metodo berberak. Galizian galizieraren presentzia soziala handia da, batere integratuta ez dagoenak ere galizieraren gizartean murgilketa-prozesu bat bizi du. Ezin diezaioke errealitate horri bizkarra eman. Hizkuntza berri baten ikaskuntzaren eta galizieraren ikaskuntzaren arteko aldeak hasierako gaitasun-mailan du oinarri. Denek dakite zerbait eta gure kasuan (helduen kasuan) ezagutza hori handitu egiten da berezko hizkuntzak gizartean duen garrantziarengatik. Gainera, ezin dira berdin aztertu beste zenbait faktore ere, ukipen-egoeran dauden hizkuntzen hurbiltasuna, interferentziak edota lotura psikosozilogikoak esaterako.

Dena dela, metodologia horiek erabiltzeko aukera ez da bazter uzten, aitzitik, ordea, gurerak ekartzen ahaleginduko gara gure helburuak lortze-

ko balio duten heinean. Gaitasun komunikatiboa kontzeptu unibertsal gisa hartuta, hots, norbaiti testuinguru eta egoera jakin batean era eraginkorren eta zehatz komunikatzea ahalbideratzen dion gaitasunen multzo gisa hartuta, helburu hori lortzeko didaktika ere unibertsala izan liteke. Jakina, lehen aipatutako faktoreak, tokian tokikoak, kontuan hartu behar-ko lirateke. Aurreiritziak gainditzea, jarreraren aldaketa, solaskidearen araberrako hizkuntza erabiltzea... galizieraren didaktika egoki batek baztertu ezin dituen alderdi soziologikoak dira. Eta emaitzak ere hobeak, irakasterakoan kontuan hartzen baditugu.

Atzerriko hizkuntza irakasteko planteamendu horietan prozesuari begiratzaren zaio eta ez horrenbeste produktuari. Eta gure kasuan prozesua da giltzarria. Hortik etorriko baitira ikasleen arteko eta ikasleen eta irakasleen arteko beharrezko elkarreragina, eta horien kariaz, bidenabar, lortu nahi dugun gaitasun komunikatiboa. Egia da, eta geure esperientziaren bitartez halaxe frogatu dugu, ikasgelan *ataza* ezberdinak egiteak irakaskuntza komunikatiboagoa sortzen duela, gelako jardunari hizkuntzaren lanketa hutsa baino xede zabalagoa baitakarkio. Ikasleen partaidetza-maila gelako lanean oso pozgarria da, guztiona den diskurtsoaren eta atazen negoziatzeetik abiarazten baita. Gaitasun komunikatiboaren kontzeptua mantentzen delarik, ikaslearengan berarengan ardatzen da irakaskuntza.

Laburbilduz, hauxe dakarkigu guri atazen planteamenduak:

- 1 Gaitasun komunikatiboaren kontzeptuaren garrantzia. Bere baitan hartzen ditu gaitasun linguistikoa, soziolinguistikoa, diskurtsiboa, soziokulturala eta estrategikoa.
- 2 Hizkuntzaren ikaskuntzan dauden mekanismoen analisisian ikasleen ikuspuntutik sakontzea.
- 3 Irakaskuntza-ereduen ikuspegi berria, prozedura, feedback eta ebaluazioan arreta handiagoa jarritz.

Gure jardunari dakartzkion onurak honela laburbil genitzake:

- 1 Proposamen linguistikoaren, bitarteko ariketen eta materialen antolaketa malguagoa ahalbidetzen dute.
- 2 Ikasleen interes-guneak integratzea errazten dute eta lana urraska egingo uzten dute.
- 3 Ikaskuntza-egoeren prozesu edo ibilbideak erakusten dituzte.
- 4 Errealitatea integratzeko modu natural bat dira.
- 5 Ikaslea ikaskuntzako aktibitateen partehartzaile bihurtzen dute, bere partaidetza bultzatuz eta ikaskuntzaren autonomiarako bidea zabalduz.
- 6 Informazioa lortze eta hedatzearekin lotutako lan-estrategiak, naturalak nahiz ikasiak, erabiltzera sustatzen ditu ikasleak.
- 7 Benetako hizkuntz material ugariaren erabilera ahalbidetzen dute.
- 8 Lotura malgu eta dinamikoa sortzen dute helburu, eduki, metodologia eta ebaluazioaren artean, zehatz eta mehatz adierazia.

- 9 Beste hainbat ezagutza-arloarekin uztartzeko bideak zabaltzen dute. (ezagupenen integrazioa).
- 10 Bai irakasle bai ikasleentzat hezkuntza-ikerketak eta berrikuntzarako berezko mekanismoak abian jartzeko marko egokia da.

Hala ere, zailtasunik ez da faltako metodoan bertan nahiz martxan jartzean. Metodoari dagokionez, atazen mailaketa, hurrenkera eta interesguneak zein diren aurkitzea ez da egiteko erraza. Martxan jartzekoan, berriz, talde osoa partaide bihurtzeko zenbait atazen antolaketa korapilatsua eta ikastaroetarako diseinu konkretu baten falta, ikasleen esku baitago aukera egitea. Baina, gainera, atazen planteamenduak irakasle ongi prestatuak behar ditu aurrenik, material egokiak, beti eskura dauden baliabideak eta irakasleen eta ikasleen rolak eta lan-ohiturak aldatzea.

Hasiak gara *prozesuen arabera* hainbat programaziori jarraitzen. Irakasle askok ataza-biltegi bat osatu dute beren esperientziaz baliaturik eta badute ataza horiek nolabaiteko balio kontrastatua gero programazioak diseinatu ahal izateko. Eskura dituzte irakasleek material didaktikoak, talde teknikoak eta baliabide-zentroen laguntza. Irakasle batzuk *proiektu bidezko programazioekin* hasi dira lanean. Ikastaro askotan komunikabide baten eraketa dago aurreikusita. Irakasleek egunkari bat, irratsaio edota telebista bat (bideo grabazio) egingo dute. Edozein kasutan, ikasleen jarduna oso partehartzailea da eta gaitasun komunikatiboak gora egin duela erraz frogatu daiteke.

Galiziako eredu osatua

Aurretiaz azaldu bezala, ikastaroetan matrikulatuta dauden ikasle gehienak gaitasun linguistiko jakin batekin iristen dira, beren ikasketen edo inguru sozial edo familiarren bitartez lorturikoa. Datuen behaketatik ateratzen dugu gaitasun-maila horrelakoa izanik ere, *erabilera-mailak* behera egiten duela nabarmen ikasleen artean. Horren zergatiaz galde egin ondoren bi arazo nagusi daudela ikusi dugu: bata, irakaskuntza arautuan ez direla metodo egokiak erabili; bestea hizkuntz jarrerei buruzko ikerketak urria edo ikerketa-falta. Lehenengoan, beharrezkoa da ereduaren birformulazio bat, ikuspegi komunikatibo osatu baterantz bideratua; gaitasun linguistikoa, soziolinguistikoa, soziokulturala, estrategikoa eta diskurtsiboa hartuko lituzke bere baitan eredu horrek. Bigarrenengan, berriz, jarreraren aldaketa eta hizkuntz portaerak aztertze lanaren premia dago.

Aipatuak ditugu jadanik geure jardun pedagogikoen oinarritzko helburuak. Helduen partaidetza aktiboa eta autonomia bultzatuko duen ereduak da guretzat eraginkorrena. Eredu horretan irakasleek hizkuntzaz eta horren erabileraaz dituzten sineskerak argitu, baloratu eta zalantzan jartzeko aukera izan beharko lukete, eta beren aurreiritziak zein diren ere jakin beharko lukete. Kontzientziazio-eredu bat behar dugu, analisi diskurtsiboaren teknikak, ahozko nahiz idatzizko testuetan, kasu-ikerketak eta simulazio-jokoak, hots, eskuarki talde-dinamikan ohi diren teknikak erabiliko dituenak... Baina hori ez da didaktikaren zati bat besterik, analisi eta kontzientziazioaren ondoren ikasgelako lanari ekitea beharrezkoa

baita. Ikastaroan bertan egiaztatu beharra dago “erabilera normala”, noiznahi eta nonahi posiblea dela, egoera eta testuingururako egokia den erregistroan eta formaltasun-mailarekin. Honela, produktuak lortzera bideratutako teknikek, egiazko ataza bat aurreikusten duten teknikek eta, adostu, diseinatu eta gauzatutako proiektu bat egitera bideratutakoek ere kontzientzia linguistikoaren gabeziari aurre egin diezaiekete. Noski, hori ezin da testuinguru isolatu batean egin; hizkuntza herri baten kulturaren zati bat da, funtsezko zatia, oinarritzkoa, baina zati bat. Zabal aztertu ditugun hainbat elementuk bertan egon behar dute. Eta elementu horiek guztiak *uztartzen* ditugun neurrian *nortasunaren* kontzeptura iritsiko gara, eta nortasun-sentipenetik kontzientziazioa etorriko da berehala. Hortxe dugu beharbada prozesu guztiaren muina, ardatza. Gure formazio-jarduerak uztartuta, globalizatuta, diseinatuta eta programatuta egon behar dute ikasten ari den heldu bakoitza, bere bitartekoak erabiliz, galizieradun bezala duen nortasunaren kontzientzia hartzera iristeko. Usadioz pentsatu izan da jarrerak osagai afektibo bat zutela eta horrek ekintzara bultzatzen zuela, hots, portaera jakin bat erakustera. Ez da beti horrela, MSGren datuak aztertu genituenean, emaitzak ere gogoan hartu behar direla ikusi baikegun. Galizieraren aldeko jarrera erakusten duen adin-taldea gazteenez osatuta dago; hala ere, horien arteko erabilera-mailak kezkatzeko moduan egiten du behera. Adibide ugari ditugu geure artean galizieraren defentsa sutsua egiten dutenena... baina beti gaztelaniaz. Ereduaren eta bere definizioaren zehaztapen-faltaz, gure jardunean ez zeuden hainbat elementu metatu dugun esperientziarekin alderatu eta apurka-apurka geure ere egin ditugu, bitarteko eraginkorrak diruditen zenbait lan-jardun eta ikuspegi ere gurerara ekarri ditugu. Hurrengo oinarritzko printzipioetan ditugu:

Galizieraren ikaskuntza eta erabilera bultzatuko duen metodologiaren oinarritzko printzipioak:

Dekalogo metodologikoa:

- Ahozkotik abiatu behar dugu.
- Hizkuntzaren ikuspegi komunikatiboa bilatu.
- Ahal dela, material errealak erabili.
- Komunikabideen laguntzaz baliatu. Irrati, egunkari eta TBrekin lotutako esperientziak bultzatu.
- Jarreraren aldaketa erraztu proiektu, atazen bitartez eta rol-trukaketaren bitartez.
- Aurreiritziak apurtu.
- Ikasleei ahalik eta autonomia eta protagonismorik handiena eman.
- Berezko kulturaren alderdiak eduki bezala ikastaroetan txertatu, prozeduraz prozedura lan eginez.
- Ikasleen sormena bultzatu.
- Galiziako literaturarako jakin mina piztu.

Jarraian, azken urteotan gure ikastaroetan irakasleek erabili dituzten zenbait teknika aurkeztuko ditugu gure helburuak lortzeko eraginkor direlakoan:

- Komunikazioaren mesedetan, ikasgelakoen arteko kohesioa indartzeko beharrezkoa da lehen unetik talde-dinamikarako teknikak erabiltzea.
- Simulazioak, rol-jokoak, probetxuzkoak dira helduak analisi diskurtsiboan eta erabilera linguistikoa eta aurreiritzien gaineko hausnarketa egiteko.
- Literaturarekiko zaletasuna pizteko, teknika ugari eta ezberdinak daude. Gure kasuan eraginkorrak suertatzen ari dira “literatur ibilbideak” eta klaseetan hainbat literatur pasarte egunero irakurtzea.
- “Literatur ibilbideak” kultur elementu ezberdinak uztartzeko baliabideak dira: hizkuntza, literatura, artea, historia, etnografia, itzulpenak etab. Ibilbide horiek xeheki diseinatuak eta behar duten dokumentu osagarriekin programatuak izan behar dute eta, halaber, ikasleek beren ahalmen guztiak behatzeko, aztertze eta autonomiaz lan egitekoak ibilian jartzeko modukoak. Badira hainbat jardun “aurkikuntza-joko”en tankerakoak, liburutegietan bilaketak egitekoak etab. ikasleak taldean integratzeko oso egokiak direnak.
- Badira ikasgelaz kanpoko jarduerak ikasleen motibazioa eta taldearen kohesioa indartzen dutenak.
- Ikasle bakoitzaren ekarpenak biziki estimatzekoak dira. Irakasleak ikasle bakoitzak zer eman dezakeen ezagutu behar du eta taldekideen aurrean azaltzeko aukerak sortu. Denek dute zer irakatsi.
- Oso komenigarria da taldeak bere komunikabidea sortzea. Dela prentsa edo irratia dela bideoa, horrelako egitasmo batek denen ahalegina eskatzen du eta zeregin ugari eta ezberdinak dakartza.
- “Adituen” bisita ere oso lagungarria izan daiteke. Elkarrizketa prestatzen eta ondorioak ateratzen ere jakin behar dugu. Aditua diogunean ez gara bakarrik hizkuntzalariei buruz ari, berezko kulturaren edozein alderditan jantzitako nornahi izan daiteke...
- Gure ahozko tradizioaz baliatzeak ere abantaila handiak dakartza, ikasleek ikusi behar baitute galdu ezin dugun hizkuntz ondare naharoa badugula. Horregatik, ipuin-kontalariak, ikastaroen osagarri gisa, ekartzeko ahaleginak egiten ari gara.
- Antzerki-saio batera joatea, ikastaro guztietan egiten dena, probetxuzkoa zaie ikasleei gaitasun komunikatiboa gaitasun linguistiko hutsa baino gehiago dela ikusteko; komunikatzea, hitz egitea edo idaztea baino gehiago dela, erregistro ezberdinak ezagutzea duen garrantzia etab. *Centro Dramático Gallego*aren lankidetzak erabakiorra izan da gai honetan.
- Gidatutako bisitaldi historikoak, ikastaroaren osagarri gisa, onuragarriak dira bertako historia, artea, ohitura eta tradizioak ezagutzeko, eta,

halaber, kulturaren osagaiez eta nortasun-kontzeptuari batasuna ematen dioten alderdiez jabetzeko.

- Bertako historiaren gaineko testuak hizkuntzaren aldertitik jorratzea oso ikasleen adorea eta jakin mina piz ditzakete. Era berean, hurbil egon arren, maiz askoan ahaztuak ditugun hainbat gairen ezagutza errazten du.
- Talde batzuek, goi-mailakoek, literatur tailerrak egin dituzte eta baita arrakasta lortu ere. Orain ikusi dute idazle izan daitezkeela.
- Arrakasta izan dezakeen baliabidea publizitatea dugu. Eta hainbat aztergai berezi daitezke: ikuspuntu soziolinguistikotik sektore jakin batzuei zuzenduriko mezuen erregistro-mota, oraindik bizi-bizirik dauden aurreiritziak edota “produktu galego”ek nortasun-sentimenduarekin duten lotura ere. Ikuspuntu linguistiko soiletik jardunda ere, trebetasun sortzaile nahiz hartzaileen alderdi guztiak dira jorragai: osagai semantikoak, morfologikoak, ortografikoak, sintaktikoak, fonologikoak... ikuspegi bikoitzetik gainera, analisiarena eta ekoizpenarena. Ikasleek material errealean bitartez proposamen horiei ekitea benetan atsegina da; batzuetan, harrigarria eta beti sortzailea.

Irakasleen zeregina

Azken urteotan galiziera-irakasleen maila hobetuz joan da, batez ere alderdi didaktikoan. Arlo linguistikoan zuten formazioa didaktika-gaiez osatu dute. Egia da arreta berezia eskaini zaiola didaktikari, oso argi ikusten baitugu zein garrantzitsua den irakasleen maila pedagogiko-didaktikoa. Hizkuntzaren egoerak berak eta bereziki helduekin lan egin beharrak baldintzatu dute irakaslearen jarduna.

Irakaslearen profila

Galiziera-irakasleek, bereziki ikasle helduei irakasten dietenek berariazko kualifikazio profesionala behar dute. Informazio-igorlea izateaz gain, hizkuntz normalkuntzaren aldeko eragileak baitira. Konpromiso etikoaren aldeko jarrera ere transmititzen dute. Ikasleari ikasten laguntzen diote, erantzun emozional eta sozialen tamaina hartzen dakite eta horren arabera jokatu behar dute. Komunikatzaile ona izatea eskatzen zaie, adorea eta kemena transmititzen jakitea eta jarrera mental aktiboa edukitzea, baina baita helburu komunikatiboa duten ikaskuntza-egoerak diseinatzen jakitea ere. Jakingai eta ikaskuntza-egoeretan aditua izan behar dute. Helduei irakasten dien galiziera-irakasleak teknikak ezagutu eta horien artetik aurrean dituen ikasleentzako egokiena aukeratzen trebea izan behar du.

Laburbilduz, gaia, bere taldeko helduak, teknikak eta gaitasun horiek areagotzeko eredu eraginkorrak ezagutzea, prozesu guztiaren hurrenkera diseinatzea, helburuak lortzeari begirako ezaugarri soziokulturalak aintzat hartzea eta prozesuaren ebaluazio etengabea egitea. Ofizio asko eskatzen zaizkio irakasleari: eragile orientatzailea, eragile dinamizatzailea, eragile kontzientziatzailea, tekniko pedagogo eta, gainera, egiten duenarekin konpromiso etikoaren aldeko jarreraren igoerlea. Zorionez, profil horri erantzuten dion irakasleak ugari ditugu. Argi dago, urteotako

ahaleginaren ondoren lortzen dela hori. Baina emaitzek garai batean abian jarri ziren formazio-ahaleginak berdindu dituzte.

Formazio- programak

Gaur egun helduentzako galiziera-ikastaroetako irakasleen formaziorako bi mintegi-mota ditugu. Hastapen-mailakoa (I. maila) esperientziarik gabeko irakasleentzako da. Honako gaiak lantzen dituzte: talde-dinamikarako teknikak, hizkuntzaren ikuspegi komunikatiboa, ikastaroetan eduki soziokulturalen sarbidea, ahozko hizkuntzaren gaineko lan espezifikoa, irakurketa suspertzeko teknikak, idazmena lantzeko moduak, motibazio, programazio eta ebaluaziorako teknika pedagogikoak etab. Mintegiak alderdi teoriko bat du eta beste bat praktikoa, eta derrigorrez gainditu behar da irakatsi ahal izateko. Gainera, mintegi hori egin duen irakasleak, irakasten hasten denean, tutore bat izango du aldamenean (jeneralean irakasle bat esperientziaduna eta ongi kualifikatua). Horrek eskainiko dio behar duen laguntza. Aurtengoa hastapen-mailako mintegiaren 5. urtea da eta emaitzak benetan onak izan dira.

II. mailako mintegiek beste filosofia bati erantzuten diote. Formazio iraunkorra eta etengabearen ikuspuntutik doaz, metodo eta material berrien ikerketari begira. Lan-taldeak osatzen dira eta horien jarduera etengabea eta ziklikoa da urte osoan. Partaide bakoitzak edo talde bakoitzak atal bat aztertzen du: metodo pedagogikoak, ikuspegi jakin batetik bideratutako edukien egiturak eta hurrenkera edota eduki jakinak lantzeko materialak. Astero biltzen dira eta esperientzia, metodo edo materialak trukatzeko dituzte elkarrekin. Proposamen guztiak aztertzeko, esperientziak ezagutzeko eta materialak ebaluatzeko aukera dute hor.

Mintegi-mota horrek eguneroko lana galbahetik pasatzea du helburu eta metodologia ezberdinen ikerketa eta beste bide batzuk aurkitzera bultzatzen du. Irakasle-ikertzailearen irudia indartzen du. Irakaslea jantzi egiten da mintegi horretan, materiala sortuz, erabiliz eta ebaluatuz. Beraz, goian aipatu ditugun eskakizunak betetzen dituen profesional kualifikatua sortzea lortzen da. Azken bi urteetan II mailako mintegi bi egin dira Ourensen eta emaitzak oso onak izan dira.

Guk helduen irakaskuntzan aurrera egiteko apostu garbia egin dugu formazioaren alde. Horixe da gure zutabe nagusia. Kanpotik egiten ditugun ebaluazioetan ikus dezakegu partaideen satisfazio-maila oso altua dela, 8 edo 9 puntuz baloratzen dute beren errendimendua 1etik 10era bitarteko eskala batean, eta ehuneko altu batek (%70 ingurukoa) berezko hizkuntzaren aldeko jarrearen aldaketa (positibo) sumatu duela esan digu.

Erronka berriak

Baditugu aurrez aurre hainbat erronka berri galizieraren didaktikan, batez ere: erabilera eta ikasleen autonomia sustatu nahi duten programen diseinua eta dagoeneko lantzen ari diren ordenadore bitarteko autoikas-kuntzarako metodoak. Atazetan eta prozesu interaktibotan oinarritutako metodoak hobetuko dira. Material eraginkorrak agertuko dira eta programazioetan behar den zehaztasun-maila lortuko dugu. Gauzak berrikusten ari gara, beharrezkoa da ikastaroen mailaketan aldaketak egitea, edukien

espezializaziora jo beharko genuke eta malgutasuna irizpide hartuz. Erreforma horren filosofiak erabilerari erantzungo dio batez ere, gaitasun komunikatiboaren eremuan emaitzak lortzen ari baitira.

Jarrerren aldaketa xede duen berrikuntza curricularrean ikuspegi komunikatiboagoak eta praktikagoak bilatzeko urratsak egingo dira, material erreagoekin lan eginez, proiektu nahiz atazen bidez, metodo ezberdinak elkarrekin osatuz, teknika diskurtsiboak ahaztu gabe.

Irakasleen formazioan, prozesu bidezko programazioak bultzatuko dira eta irakasleek beraiek sortutako materialekin esperimendatuko da. Irakasleei ia erabateko autonomia emateko ideari jarraituko diogu, beti ere, formazio egokia jaso ondoren. Programazioa teknikoki ezagutzearekin, programen egokitzapen curricularrekin, edukien hurrenkera egokiarekin eta prozesuari egokitutako metodoaren aukeraketarekin lan egiten jarraituko dugu. Bidea zabalik dago eta urratzea besterik ez zaigu falta. Hasiak gara ibiltzen, baina azkarrago jarraitu beharko dugu.

Baliabide-zentroen bitartez bereziki diseinatutako material gehiago izango dugu. Alor honetan material bereziak sortzen ari diren lan-taldeek ekimenak ugari ditugu jadanik.

Ondorio gisa

Helduentzako galizieraren irakaskuntzan Galiziako egoera zein den azaldu nahi izan dugu. Beharbada, lan honek denbora gehiago behar zuen material curricular eta proposamen zehatzetara iristeko, baina ezinezkoa da denbora-muga tarteko; ez da ere ponentzia honen helburua zehaztasun-maila handiagotan sartzea. Ikuspegi orokor bat eskaini nahi izan dugu eta foro honi Galiziako errealitatea hurbildu, jakin badakigu komunitate bakoitzak bere arazo propioak dituela, baina, aldi berean, uste dugu esperientzia, metodo eta egitasmoak elkarrekin trukatzeko aberasgarria gerta dakigukeela guztioi. Horregatik, geure aletxoak ekarri nahi izan dugu, didaktika eraginkorraren bitartez, komunitate bakoitzaren berezko hizkuntzaren normalizazioa eraikitzeko.

Itzultzailea: Nekane Goikoetxea

Bibliografia

- Lomas, C. e outros. 1993. *El enfoque comunicativo de la enseñanza de la lengua*. Barcelona. Paidós.
- Lomas, C. e outros. 1993. *Ciencias del lenguaje, competencia comunicativa y enseñanza de la lengua*. Barcelona. Paidós.
- Silva-Valdivia, B. 1994. Sociolingüística e didáctica da lingua en Galicia: aproximación ó pensamento dos futuros profesores de lingua. *Cadernos de Lingua* 6: 125-135.